



AKELARRE - N. Basterretxea



## EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa

Lege gordailua: BI-85-98

# berton


MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

2000ko otsailak 19. zkia.  
125 pzta.

Eguzki Lorea  
Mendi Taldea



Mahatserriko Haur  
Eskolak



**ARKAITZ ESTIBALLES**  
*"Bertsolaritzak  
etorkizuna  
ziurtatuta dauka"*

Beherapenak ↻ Salhaketa ↻ Sebas Angoitia



# betikoak

## Negua Mahatserrian



Luis Amann eta Roman Alonsok paratu eben Nire Bilbao Maitia liburutik hartutako argazkia

Begoñako eleizarako mailak edo eskilarak edurrez estali ziran 1913-1914ko neguan. Itxuraz eleizgizon zan ibiltari bakartia gorantza joiala harrapatu eban erretratugileak. Bide baztarran, albo bietan, arbolak eta muruak ikus leitekez, gaur egun etxe handiak nagusi diran tokietan. Eskilara zabalak, basilikaren inguruetaoak, seguru asko. Dudarik ez, ostera, urte hartako neguko hotzaz. Hura mahatsorrien dardara!

**ARGITARATZAILEA:**  
Batana Batu Kultur Elkartea

**ERREDAKZIOA:**  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta:  
berton@mail.com

**ZUZENDARIA**  
Hektor Ortega

**ERREDAKZIOA:**  
Arrate Diez,  
Unai Cuevas  
Joana Martínez,  
Joana Etxebarria,  
Irene Berro,  
Iratxe Ruiz,  
Leire Altamira,  
Erdoitza Martínez

**ARGAZKIAK:**  
Iñigo Azkona eta  
Xabier Herrera

**DISEINUA ETA MAKE-  
LAZIOA:**  
Iñaki Berastegi,  
Joseba Barrene-  
txea, Benito Fiz

**KOLABORATZAILEAK:**  
Jaione Letamendia,  
Itxaso Perez,  
Alberto Ugarte,  
Iñaki Gaminde,  
Igor M. de Vidales,  
Santutxuko Bertso  
Eskola, Igor Zorro-



zua, Iñaki Aurreko-  
etxea, Joseba  
Zelaia.

**ADMINISTRAZIOA  
ETA PUBLIZITATEA:**  
Koldo Urrutikoe-  
txea, Joxe Garcia

**LEGE GORDAILUA:**  
Bi-85-98

**ALE KOPURUA:**  
1.000

# A U R K I B I D E A



- ▶ Betikoak .....2
- ▶ Iritzia .....4
- ▶ Salhaketa: Barrukoen Hitza .....5
- ▶ Hileko argazkia .....7
- ▶ Begoña eta euskerea .....8
- ▶ Berton dugu! Beherapenak .....10
- ▶ Elkarriketa, Arkaitz Estiballes .....12
- ▶ Inkesta .....15

- ▶ Mahatsberriak .....16
- ▶ Lizarra Garazi Txikia .....19
- ▶ Behetik Gora .....22
- ▶ Bota ba!, Eguzki Lorea .....25
- ▶ Bidean Gora, Mendi Ibilbideak ....26
- ▶ Bideak, Sebas Angoitia .....27
- ▶ Badatoz, Agenda eta horoskopoa ..30
- ▶ Begizorrotza, Komikia .....31

Aupa Mahatsorriok!  
Zooooooooorionak zuri! Zorionak zuriiii!!!!!! Zorionak, zorioooooonak... Berton. Bai, neska-mutilok, Bertonek urte bi egin ditu, hogeita lau hilabete eta piko. Eta aurrerantza doa.

Eta zelan ospatuko dugu? Ba, Berton gero eta hobea eginenez, gure inguruko gero eta informazio gehiago batuz eta gero eta bertoko euskaldun gehiagoga ailegatuz. Beraz, ez egizue pentsatu aurreko zenbakiarekin pasatu zena oparia izan zenik, ez, ez genizuen ale bina bidali gure urteurrena ospatzearren, ez, ezta segurtasun-kopiarik eduki dagizuen ere. Inprentakoen erakuntzatxo baina ez zen izan, eta gu hain eskuzabalak izanik, ba pentsatu genuen: tira! Ale bina botako ditugu, horrela hartzen duenak egingo du, bata irakurri eta bestea baten

bateri eman, irakurri dagian, eta horrela jende gehiagok jakingo du hemengo barri.


Oraingoan, berriz, ale bakarra doakizue, beti legez, eta aurrekoan leku bitan irakurtzeko parada eduki duzuen, orain baten irakurri beharko duzue, behin, birritan edo zenbatgura biderrez. Eta irakurri ahal dituzue Arkaitz Estiballesen koplak hitz-lauz, edo Salhaketa salaketak, edo Kirikiñoko bertso-saioen gora-beherak, edo Bolueta-ko Eguzki Lorerenak (hauek behera baino gora gehiago egiten dute) eta gauza gehiago.

Irakurri ba, eta zorionak eman gura badizkiguzue, bada- kizue non gagozen. Bidali zuen opariak helbide honeta- ra: Berton aldizkaria: Iturriaga 55, 1. ezkerrean 48004 Bilbo. \*konturatu zarete urte biren ostean batuaz idazten ikasi dudala? Datorren urtean EGA aterako dut, dediooo!

Sinaturik: betiko (ala betirako?) Mahatsorrianoa.

# IRITZIA

## MARIA AGIRRE KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Maria Agirre eta Agirre andra gurena izan zan Bizkaiko historian, XIX. gizaldiaren amaieratik XX. gizaldiaren lehenengo hogeitazak urteetara. Bada, andra guren horrek izena emoten deutso Begoñako eleizateko kaleetako bati. Egin-eginean bere, andra hori Liverpoolen jaio zan 1868. urtean, beraren jatorria euskalduna izanagaitik.

Andra guren hori jatorri aberatseko familiakoa izan zan, eta jatorri horrek bidea emon eutsen Maria Agirre eta Agirre andrari, berak egin gura izan ebazan ongintza guztiak burutu ahal izateko. Berak maiteen eukazan gurarien artetik, baegoan bat beste guztien gainean behin eta barriro ageri zana: Begoñako Andra Maria. Izan bere, jaiera izugarria eutsen Begoñako eleizateari izena emoten eutsen Andra Mariari; hori izan zala eta, ongintza handi eta ugari egin eutsozan haren santutegiari, bai eta Andra Mariagaz zerikusia eban guztiari bere.

Egin-eginean bere, Maria Agirre eta Agirre andra guren horrek ongintza asko egin eban, besteak beste, koroa ederra emon eban dohaintzan Begoñako Andra Mariaren irudia santutzeko; izan bere, santutze hori 1900eko irailaren 8an jazo zan; horretarako, harek andrak bere bitxiak emon ebazan, eta Anduiza'tar Luis urregilearen faktorea ordaindu eban. Arte-lan horri 98.000 pezetako balorazioa egin jakon 1900. urtean, gaur egun, barriz, hainbat milioiko balorazioa izango litzateke. Ez dogu ahaztu behar, hori guztia egin ebala 32 urte ebazala. Beraren senarra Romualdo García Ogara izan zan.

Bada, andra guren horrek kale txiki bati emoten deutso bere grazia, lehen esan dogun legez, eta kale horrek batzen dauz sutautsaren gordailua dagoan lekua eta Begoñako Andra Mariaren izena dauan kalea; andra guren horren izena dauan kalea, barriz, Mallonako futbol-zelaitik hur dago, bai eta On Pedro Cortés udal osagilearen etxebizitzaren mul-tzotik hur bere.

GOTZON LOBERA REVILLA, Euskara Sustatzeko Zuzendari Nagusia (Kultura Saila - Bizkaiko Foru Aldundia).



**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak**  
diruz lagundutako aldizkaria

**Bizkaiko Foru Aldundiko**  
**Kultura Sailak**  
diruz lagundutako aldizkaria

## hartu bertón etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertón aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerria, 48004 Bilbo


Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....  
 Abizenak: .....  
 Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....  
 Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....  
 Telefonoa: .....  
 Bankua: .....  
 Kontu zenbakia (20 digito): \_\_\_\_ / \_\_\_\_ / \_\_\_\_ / \_\_\_\_

Sinadura

# SALHAKETA: BARRUKOEN HITZA

Joana Martínez Ortueta



Espetxeak. Gure gizarte moderno eta zibilizatu honentzako arriskutsuak izan daitezkeen gizabanakoak baztertu eta kontrolpean mantentzeko leku ilunak. Kanpoan gaudenoi zail gertatzen zaigu horma horien atzean daramaten bizimodua imaginatzea eta nahiago izaten dugu horretan ez pentsatzea. Behin gartzelan sartuz gero, ahazturan jauzteko arriskua handia da.

Salhaketak, horren aurka borrokatzen du, hain zuzen ere. Elkarte honetako kideek ez dute ahazten hor barruan preso daudenak, edozein lege hautsi dutelarik ere, pertsonak direla. Printzipio hau oinarritzat harturik jaio zen Salhaketa 1980. urtean, nahiz eta 1982. urtean ez zuten euren egoera legalizatu. Eta orduetik hona joandako hogeitaz urteetan zehar era guztietako oztopoak gaituz eraman dute aurrera euren lana: presoekin kontaktuan egon eta ahal den neurrian beraien egoera konpontzen saiatu.

Baina, zertan datza zehazki Salhaketaren lana? Lehendabizi giza eskubideen defentsa burutzea ezinbestekoa da, preso guztien eskubideak errespetatuak izan daitezen lortzea, alegia. Baina hori ez da nahikoa: pertsona hauek beraien askatasuna lehen bait lehen berreskuratu dezaten ere borrokatzen dute erakunde honetakoek. Azken finean, laguntza bila heltzen zaien edozein eskakizuni erantzuten saiatzen dira, kasuan kasu dauden beharrianak beteaz.

Ez da batere lan erraza, beraz. Hala ere, presoek ahoz-ahoz ematen diote elkarrizkeria honen berri eta lanez gainezka egoten dira beti Salhaketakoak: gehienetan laguntza juridikoa eskeini, babes eske joandako espetxeratuak euren eskubideen berri eman... Beraz, oraindik barruan dagoen jendearekin egiten dute lan batez ere, behin askatasuna berreskuratu dutenean kontaktua galtzen da, izan ere badaude bestelako erakundeak bergizarteratzeaz arduratzeko. Baina normalean

horrela gertatzen bada ere, Salhaketan ez zaio sekula inori laguntzarik ukatuko. Ezin dugu ahaztu mota honetako lehen erakunde laiko eta apolitikoa dela, eta horrek bere pisua dauka.

Tamalez, jendeak ez du talde honen berri, eta hau argi eta garbi ikusten da kontutan hartuta laguntza eskera gehienak presoek egiten dituztela zuzenean, senideek nora jo ez dakitelarik. Arazo hau konpontzea momentu honetan Salhaketak duen helburu garrantzitsuen artean dago, izatez, borondatezko langile eta diruarekin funtzionatu izan dute beti. Eta horrela jarraitu ahal izateko ezinbestekoa da gizarte mailan ezagunak izatea. Izan ere, Foru Aldundiaren diru-laguntza txiki bat kenduta, ez dute inoiz erakunde ofizialen laguntzarekin kontaktu, kontrakoa baizik.


Oztopoak oztopo, Salhaketako partaideak beste hogeitaz urte aurrera jarraitzeko prest daude, espetxeak zutik mantentzen diren bitartean behintzat erakunde hau hortxe egongo da presoek laguntzeko gertu, arlo juridikoan zein sozialean.

SALHAKETA: Uribarri Kalea 2, 3. Esk. 48007 (Bilbo) Telfnoa: 94-4464100



Urtebeteko harpidetza izango duzu:  
11 zenbaki, 1000 pezetatan.

berton



Mahatserriko  
Aldizkaria

hartu berton etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre,  
48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....  
Abizenak: .....  
Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....  
Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....  
Telefonoa: .....  
Bankua: .....  
Kontu zenbakia (20 digito): \_\_\_\_\_ / \_\_\_\_\_ / \_\_\_\_\_

Sinadura



Eguen zuri honetan  
hasi gara gu kantetan  
zuri zuritxuak maixuarentzat  
beste enparauak guretzat

Kuriosotxu hasi gaitezkan  
etxe hoetan kantetan  
lotxu gozuan daguezanak  
ikeratu ez daitezkan

P  
E  
G  
I  
R  
A

A  
B  
R  
A  
M  
O



Euskal armada sortu barria zan eta 1936ko azaro eta abenduko Legutioko ofentsibaren porrotaren ostean, 1937ko martxoaren 31ean frankistek Bizkaiko ofensibari emon eutseen eta egun gitxiren buruan hartu ebezan Otxandio, Elorrio, Markina eta Durango bonbardeatu.

Angel Martín, boluntario apuntatu zan Salsamendi batalioi sozialistan eta Otxandion hartu eben preso  
*"Ha izan zan ba itzela, han ikusi neban nik bonbak jausten, morroiak airean..."*

Okina ogibidez, Bilbo eta Begoñako istorio asko ezagutzen dauz eta honeen artean Bilbon egozen hamabi tranbietako lineak eta baita baktoxaren ibilbide osoak. Gaur egun Txurdinagan bizi da.

## Begoña eta Euskereea

I.Gaminde, I. Martín de Vidales eta K. Urrutikoetxea

### ESPAINIKO GERRA ZIBILA GURE HERRIAN ETA HAINBAT BEGOÑATARREN BIZIPENAK (II)

**Berton.-** Nongoa zara?

**Angel.-** Abandoko Zugaztinobian jaiokoa eta gero Begoñazpira bizitzen etorri nintzen eta beharrean ibilita nago Arrue eta Harino Panadera okindegietan

**Berton.-** Ondo ezagutu zenduzan Bilbon egoneko tranbiak, Begoñoakoagaz gomutetan zara?

**Angel.-** 11 zenbakiduna izan zen, Miserikordia-Begoña, Begoña, Prim Zamudio atea, Bidebarrieta, Hareatza, Gran Bia eta Jesusen Bihotza korritzen ebazan, 15 txakur handitan txantela Durango eta Arratiako tranbian goizeko seiretan baserritarrak etorten ziren beharrean Etxebarriara, moilara, kaira

**Berton.-** Orduko Begoñako gomutarik badaukazu?

**Angel.-** Arrue okindegian nagoela, Matalobos izeneko iturrira goizaldeko ordu bietan igaten neban potixagaz uretan. Begoñako plazan kuartela egon zaneke pasadizu bategaz gomutetan naz, Santo Domingo gainan bizi zan Kamiruagak taberna euki eban. Begoñako "rebotillo"n jolasten gabiltzala, antza ezkonduko bategaz ibili zan eta preso altzatu eben, txapelgorriak kartzelatik atara ebenean dino baze, "bakarrik itxi barik zegaitik ez deustezue beragaz egoten ba!"

**Berton.-** Gerratean egon zintzen zu, ezta?


**Angel.-** Salsamendi batailoian boluntario egon nintzen,

danok oikinak eta tabernariak izan gitzen. Izena Bilboko sozialista famadu batena da. Ibarra izeneko bateri kendu eta Campo Volantineko txalet baten euki genduan kuartela.

**Berton.-** Bizkaiaren kontrako eraso martiaren 31an hasi zan, zuok noz joan zintzeen frentera?

**Angel.-** Apirilaren bian Balmasedatik urten eta Otxandioragino joan gintzen, hirutik laurerako goizaldean goizaldeko ordu bietan atara genduezan mendira igateko; han nire anaia egoan beste bataloi baten eta ezin ikusi izan neban ze eurok bajatu ziren eta itaundu egiten geuntseen ze, zelan ba, eta eurok ba ondo, ondo egoten da, kaminoan moro partida bat dago hilda. Gu begira eguna noz egingo eban begira ikusteko dana eta goizaldeko bostetan kainoiak eta hegazkinak hasi ziren, Junker alemaniarrek hirunan hirunan etorten zirenak, eta danba-danba, bonbak bota eta bota, ha izan zan ba jentea hiltea! han ikusi neban nik bonbak jausieran morroiak airean zelan ibiltzen ziren, guk zorrea euki genduan, asalto lekua esate jakon, egon zan luban bakarria gure konpainiak euki eban, eta atzean mendia egoan. Dana akribilatu egin eben. Gero soldaduak eta falangistak han hor hemenetan, erdian hartu eta preso altza genduezan.


**Berton.-**Orduan lehengoan altzatu zenduezan



Artxanda (fondoan Casino), Bilboko azken defentsa

Bilboko tranbia Ibaizabalen ezker ertzetik, eskoi aldera pasatzen zubiak bota ostean.

1937. urtean



**Angel Martín Salsamendi** batalioian egon zan gerratean. Gaur egun Txurdinagan bizi da.

preso, ezta?

**Angel.-** Preso hartu nenduen 1937.eko apirilaren lauean Otxandio Oleta kaminoan. Han batailoi asko egon zan, gu hartu gendueza-

nean oinez eroan genduezan Otxandio ganetik, basorik baso, "Jacinto y el maroto"tik eta Añanara eta han trenean sartu eta Gasteizeegino. Han danatarik esaten euskuen, gero hurrengo gauean ez genduan bertan lorik egin, dana tximintzez beterik egoan eta hurrengo goizean handituta urten genduan. Orduko gauerako afariteko indaba gorriak emon euskuezan eta gozo egon ziren. Italiarrak Guadalajaratik etorri ziren eskapan eta eurok sartuteko gu atara genduezan eta komentu baten sartu, ha dana preso betarik egon zan. Leihora ezin urteten genduan ze goardian egon ziren erreketek tiro egiten eben leihoetara, baten bonbila aparatu eben.


**Berton.-**Eta Gasteiztik nora?

**Angel.-** Handik San Pedro de Cerdñara eroan genduezan, Burgosko monastegi bat zan, han preso gitxi

egoan eta han egon gintzen Santiago egunera artean. Han gagozela Bilbo hartu eta ofizial batek cara al sol kanta eragin gura izan euskun baina batek bere ez eban kantatu.

**Berton.-** Han inor afusilatu eben?

**Angel.-** Han Santoñako bat baino ez eben afusilatu, berorrek eskapatu eta hango inguruko baserritar bateri itaundu ei eutsen ea frontea non egoan, orduan legionario batek beste bigaz urten eban eta harrapatu eta bertan afusilatu eben. Han libre egoteko baimena etorri jakun eta Palenciara eroan genduezan, orduan Asturias hartzen ebizen, eta gero Sigüenzara bagoiak



deskargetan, lubanak egiten, alanbrak iminten eta hori guztiori.

**Berton.-** Eta noz etorri zintzen atzera Bilbora?

**Angel.-** Ni etorri nintzen gerratea amaituta eta 40an Begoñan Consuelogaz ezkondu nintzen. Ezkondu eta ostean Garellanora deitu eusteen soldaduska egiteko eta Bartzelonatik Mallorcako herri batera eroan nenduen, eta bertan lizentzia artean egon nintzen.



## ALDAPA GORA, ALDAPA BEHERA

Leire Altamira

Urtero gertatu ohi denez, etxe gehienetan urtarrila ez da oso hilabete egokia ia inorentzat diru kontuetan. Gabonetan zehar eskaldunok egiten ditugun gastuak gainerako hilabeteetan egitakoak baino handiagoak dira % 70an, mahaia jaki goxo eta ez ohikoez betetzeko, umetxoei (eta hain ume ez direnei) Olentzero opariak erosteko, loteria txartelak eskuratzeko edo dena delakoa egiteko. Honela, egun hauetan ehun mila bat pezeta inguru doazkigu ia konturatu gabe.

Gauzek, ordea, ez dute hemen bukatzen. Urte berri batek bere sarrera egiten duen bakoitzean, aldi berean norberarentzat desio onen eskakizunekin, erretzeari uzteko nahiekin, gimnasia joateko beharrek eta antzekoekin batera beharpenak ere agertzen dira. Urtarrilaren zazpian, beraz, hainbeste jende aspalditik itxaroten zituen prezio jaitsierak heldu ziren, baina honek ere komertzio handi zein txikiak jende pilaketak eta amaigabeko hilerak dakartza ordaintzeko momentuan. Oso arrunta denez zail egiten zaigu egunotan esku-hutsik ateratzea denda guztietatik, batean zein bestean produkturen bat gure eskuetan jausten delako etxera heldu aurretik. Beraz, urtarrila ez dirudi oso aproposa denik gabonetako aje ekonomikoa pasatzeko, kale gehienetako dendek erakuslehoetan behin eta berriz ikusten ditugun "beherapenak" hitzaz apainduriko kartela erakargarriak aurrean izanik.

Hala ere, adituek deritzoten "erosketa kontzientea" eginez posible zaigu ospetsua zaigun urtarrileko aldapa honen tontorreraino -otsailean zehar ere luzatzen dena- arazo larriegirik gabe igotzea. Honen arabera, erosleak denbora gehiago eman

beharko luke bere erosketak egiten beharpenen aurrean era egoki, jakintsu eta profesionalean jokatzeke eta baita kartel koloretsu eta deigarri horien atzeko amu arriskutsuetatik ihes egiten jakiteko. Guzti honetarako bi dira XX.mende bukaerako (edo batzuek diotenez, XXI.mende hasierako) "euforia kontsumista"ri aurre egiteko maximak: doitasuna eta aurrikuspena. Esan nahi dena zera da: gabonetan euren kreditua ahitu duten hiritar asko dardarka hasten direla hurrengo egunetan datorkiena ikusirik. Hori dela eta, kasu hauetarako baliagarri liteken aholku bakarra "beharrezkoak" dituzten gauzak soilik erostea izango da; behar horien arabera jokatzea, hain zuzen ere, eta ez prezioen arabera, sarritan oso jarraiak diren kauka edo gangek edozein aurrekontu desoreka ditzaketelako.

Kontsumitzaile garenontzat arestian aipatutako aldapa urtarrilean hasten bada ere, euren eguneroko ogia salmenten bidez lortzen duten horien aldapa otsailean dator. Hemen dugu beraz, beharpenen beste aldea. Gabonetan eta beharpenetan guztiok dirutza handia utzi ondoren, diru-zorroak hutsik aurkitu eta erosketek denboralditxo batez atsedenal-

bertin

di bat emotea erabakitzen dugu. Baina saltzaileek bitartean egunero jan beharra dute eta euren diru sarrerek oraingoan jaitsiera nabarmena somatuko dute aurreko bi hilabeteekin konparatuta. Gainera kontuan izan behar da hauek saltzaile badirela, baina edonor bezala kontsumitzaile ere. Hori dela eta aldapa hau bi era ezberdinetan pairatuko dute (kontsumitzaile bezala lehenengo, negozioan arrakasta lortuz, eta saltzaile bezala ondoren). Ikusitakoarekin beraz, argi dago bai mostradorearen alde batekoek bai besteak ere, nahitaezko aldapa igo beharrean gaudela!



Beharpenen aldi hau hasten den bakoitzean CEACCU erakundeak (Confederación Española de Organizaciones de Amas de Casa, Consumidores y Usuarios) egiten dituen adierazpenak kontuan hartzekoak dira bizi garen gizarte honen adierazgarri izateaz gain, kontsumoan nolabaiteko eboluzioa somatu izateagaitik. Erakundeak dienez "aspaldi utzi genuen kontrolatu ezinezko kontsumo garaia", badirudi kontsumitzaileak gero eta eratuago eta informatuago gaudela prezio, produktu beraren eta erosleen eskubideen inguruan. Hain zuzen ere, beharpenetan prezioak direnez murrizten direnak eta ez kontsumitzaileen eskubideak, CEACCU-k aholkuok eskeini dizkigu benetan merkealdi haue-tatik probetxu ateratzeko inolako arazorik gabe:

"Merketuta dauden produktuek, beharpenen aurretik zeukaten kalitate bera izan behar dute. Ezin dira akatsdunak izan ezta merkealdietarako espreski komertzioek erositakoak.

"Prezio berriarekin batera, produktuak merketu

aurretik zuena agertu behar digu ere.

"Dendak urtean zehar kreditu txartelak onartu izan baditu, oraingoan ere derrigorrez onartuko ditu prezioaren gaineko inolako errekar gurik egin gabe.



"Benetako ganga horiek normalean izen handiko firmetan eta kalitatezko produktuetan izaten dira. Izatez % 60ko merketzea euki dezakete produktu hauek.

"Kontzienteki erosi behar dugu eta ez diegu kasu handiegirik egin behar "ordain 2 eta eraman itzazu 3" izenpeko kartelei, erosketa hauek sarritan erren-tagarri ez direlako izaten.

"Kontsumitzaileak produktua itzultzeko eskubidea du, gainontzeko epeetan izan dituen baldintza berberetan.

"Merkealdietan ere ticket-a eskatzeko eskubidea du erosleak, horretan saltzailearen datuez gain, prezioa eta B.E.Z-a ere agertu behar direlarik. Gainera hau ezinbestekoa da produktua itzuli ahal izateko edo bestelako erreklamazioren bat egiteko orduan.

Orain ganga ederrak aurkitzea baino ez zaizue geratzen!






# ARKAITZ ESTIBALLES

Loana

Nahiz eta Galdakaokoa den auzokotzat dugu Arkaitz. Ikastolan hasi, Euskal Herriko bertsolaritza txapelketaren atariraino heldu eta duela sei urte Santutxuko Bertso Eskolan dabil bere pausak jarraitu nahi dituenei irakasten. 22 urtetako bertsolari gazteak Euskal Filologia ikasten dihardu eta bertsoan ez ezik prosagintzan ere bere saiakerak egin ditu zenbait sari irabazi dituelarik.



*"Bertsolaritzak etorkizuna ziurtatuta dauka"*

**Berton:** Nola sartu zinen bertsoen mundu honetan?  
**Arkaitz:** Hasieran "autodidakta" izan nintzen. Amak Amurizaren "Zeu ere bertsolari" liburua ekarri eta zaletasuna hartzen joan nintzen. Oraindik ere gogoratzen ditut ikasi nituen errimak: esperantza, saltsa, gabiltza, bitsa. Beranduago ikastolan bertsolaritza lantzen hasi nintzen eta Galdakaoko bertso eskolara pasatu nintzen.  
**Berton:** Bertsolaririk al duzu familian?

Egia esan familian ez daukagu bertsolaririk. Zaletasuna izatekotan, aititek. Bai, hura zen bertso saioak ikustera etortzen zena.  
**Berton:** Zein izan zen zure lehenengo saioa?  
Ez naiz ondo gogoratzen, beharbada ikastolan ibiltzen ginen garaian Lemoako ikastolan eskeiniriko saioa izango litzateke lehenengoa. Gainera saioa prestatuta eraman gendun, bertsoak buruz ikasita. 86.ko Euskal Herriko liburua hartu eta bertatik bertso


batzuk aukeratu genituen. Garai hartan "mokoso" bat nintzen eta saiora brometako puru handi bat eraman nuen Egaña imitatu nahian.  
**Berton:** Konta egiguzu zer gertatu zitzaizun kanporaketa pasatu ondoren Bermeon ospatu zen final horretan.  
Ja, ja, ja! Gogoratzen naiz nahiko mareatuta heldu gine-la bertara. Hori gutxi balitz antolatzaileek Estibaliz Ormaetxea bertsolaria falta zela esan zuten eta hau en-

tzutean nire izena erratuta zutela konturatu nintzen. Arkaitz Estiballes Ormaetxea naizela esan eta orduan dena argitu zen.

**Berton:** Zer esan ahal diguzu 20 urte dituen Santutxuko bertso eskolari buruz?  
Eskola hau Euskal Herriko lehenengoetarikoa dugu eta hasieran euskal gune bezela sortu zen. Gero bertsolaritza mundua barneratzen hasi eta gaur eguneraino. Orain jendea bertsotan ikastera dator. Zehazki ez dakit zenbat ikasle dauden, baina nirekin dozena bat ikasle daude. Gainera ez dira bakarrik Santutxu edo Bilbokoak, baizik eta Audio, Amurrio... ingurukoak ere bai, eta gainera adin guztietako jendea dela esan behar da.

**Berton:** Zer nahiago duzu eskenatoki gainean edo bertso afarietan aritzea?  
Gero eta gutxiago gustatzen zait eskenatoki baten kantatzea eta jendea behean izatea ... Bertso bakoitzak azterketa bat dela ematen du. Bertso afarian oster, bertso txarra atera leike baina saioa bera orokorrean ikusten da. Badau-de "bertso afari" eta "bertso afariak", ekitaldi bat besterik ez direnak eta pare bat bertsolari gonbidatu dituztenak edo benetako bertso afariak. Azken hauek ditut gustokoen, dudarik gabe.

**Berton:** Nor da gustokoen duzun bertsolaria?  
Egia esan, ez dago bat. Bertsolari bakoitzak baditu momentu altu batzuk eta besteetan baxatu egiten da. Bertsoa egiteko moduan Amuriza asko



gustatzen zait. Errima aldetik edo sentimenduak adierazteko moduan hain zuzen ere. Egaña berak ere duen ironia edo tonua aldatuz kantatzeko era oso atsegin ditut. Bestalde, Irazuk duen bat batekotasuna edo Unai Iturriagak botatzen dituen "puntazoak" ere aipatu beharko nituzke. Bertsolari perfektua izango litzateke guzti honen nahasketa bat, eta hori ezinezkoa da...

**Berton:** Idazteko zaletasunik ba al duzu?  
Nire sasoian idatzi izan dut, Urruzuno lehiaketan adibidez parte hartu dut, bertan badituzten lau ipuin argitaratuak eta Goredolako ipuin lehiaketan ere. Gero, aukeratzeko ordua helitzen da eta bertso idatzietara jo nuen. Prosa baztertu behar izan nuen, baina aurten go-


goekin hasi naiz eta Gabriel Aresti lehiaketera ipuin bat bidali dut. Ea zer gertatzen den...  
**Berton:** Zein izan da pasatu duzun momenturik txarrena?  
Momentu kritiko bat izan zen niretzat... Diman Juanjo Basterri egindako omenaldia izan zen. Garai hartan oraindik ez nituen bapateko bertsoak egiten baina kantatu behar izan nuen. Horrela zazpi puntutako bertso batzuk egin eta buruz ikasi nituen. Eskenatokia igo eta jende pilo aurrean ikustean bertsoak ahaztu zitzaizkidan eta momentu hartan beste bertsoen bat asmatzeko ez nuen abileziarik izan. Orduan eskenatokitik jeitsi kotxean sartu eta aitari esan nion "goazen". Hori bai



momentu "txungoa" nire krisirik larriena izan da, orain gutxienez errekurtso gehiago dituzu. Momentu txar honetaz gain, beste bat ere gogoratzen dut. Hamazortzi urte nituelarik gertatu zitzaidan. Garai hartan helduagoa nintzen eta min egin zidan gauza bat izan zen. Kiri-kiño ikastolak urtero ospatzen duen saioa ikustera joan eta mesede egitearren eskenatokira igo behar izan nintzen. Nahiko bertso gogorak bota nituen baina badirudi jendeari gustatu zitzazkiola. Hurrengo astean Anjel Loberak egunkari batean bertsolari batzuen aurkako hitzak idatzi zituen, nola politikari buruz bakarrik aritzen ziren eta lehenagoko bertsolari modukorik ez zegoela. Guzti honen adibide gisa, Arkaitz Estiballes erabili zuen. Zaurituta geratu nintzen. Dena den, Iñaki Aurrekoetxeak erantzun zion, hurrengo astean nuen lehiaketara ikustera joateko gonbitea eginez. Noski, ez zen bertatik agertu.

#### Berton: Eta Santutxu zer?

Azkenengo bost urteetan Santutxutik asko nabil eta harreman asko dut. Oso gustora sentitzen naiz bertan, izan ere normalean onartzen zaituzten tokietan oso gustora zabilta.



#### Berton: Nola ikusten duzu bertsolaritzaren etorkizuna?

Bertsolaritzak etorkizunak ziurtatuta du. Bertsolariak orain badaude eta urte pilo batetarako egongo dira. Aldiz, helburuak aldatu egin dira, lehen famatu izatea zen helburu bakarra, orain hain beste jende dagoenez zaila da gora heltzea eta horretarako bide alternatiboak bilatu behar direla uste dut. Gutxienez, bertsolaritza ezagutzea eta herri denetan bertsolaritza gustoko duen jendea biltzea dela garrantzitsua uste dut.

#### GALDERA LABURRAK

**Abesti bat:** *Hertzainaken "no time for love"*

**Pelikula bat:** *"La naranja mecánica"*

**Kirol bat:** *eskupilota*

**Amets bat:** *Euskal Herri librea.*

**Bertute bat:** *zintzotasuna*

**Akatsa:** *faltsukeria*

**Mendia ala hondartza:** *mendia.*

**Eguna ala gaua:** *Gaua*

**Musika lasaia ala gogorra:** *Lasaia*

**Bakardadea ala iskanbila:** *Bakardadea*

**Neskalaguna ala lagunak:** *Biak*

**Zuria ala beltza:** *Beltza*

**Uda ala negua:** *uda*

# I N K E S T A

## ZER PENTSATZEN DUZU SAN BALENTIN EGUNARI BURUZ?



AVELINO  
TXURDINAGA


Lelokeria bat da. Bikote baten maitasuna urteko egun guztietan nagusi izan behar da.

OLATZ  
TXURDINAGA

Txarto derizot egun komertziala baitirudi. Egun guztiak San Valentín izan beharko ziren. Zergatik egun bakarra?

ESTIBALIZ  
SANTUTXU

Negozio bat da. Aita edo Amaren eguna bezalakoak.



JON  
SANTUTXU

Maiteminduen eguna da baina azken finean kontsumitzekoak, gabonak bezala. Publizitateak berezko sentimendua galtzea ekartzen du.



FELI  
SANTUTXU

Denda eta jatetxeentzat negozioa. Bi pertsonak elkar maite badute ez dute egun berezirik behar.



AINZANE  
SANTUTXU

"Corte Inglesa" ren asmakizuna da, nahiz eta 13-14 urtekoentzat aitzakia ederra izan ligatzeko.



ANE MIREN  
ONDARROA

Gizarte kontsumitzailen bizi garenez, ohi-tura eredutzat jartzen da negozioa egiteko.



MIKEL  
SANTUTXU

Ez dut neskalagunik orduan inoiz ez dut egun hau ospatzen. "Corte Ingles" aren asmakizuna da dirua gastatzeko.



# MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

## AVENIDA HOTELA IREKITZEAR DAGO

Begoñako eliza alboan dagoen Avenida hotelak Martxoaren hasieran bere atea irekiko ditu berriro ere. Berregituraketa lanak pasa den abenduan hasi ziren eta orotara 500 milioitako inbertsioa suposatu dute. Lan hauen bidez, hotelak ireki zeneko (1967) laugarren izarra bereskuratu nahi du; horretarako Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailaren baimenaren zain daude. Berregituraketaren ondorioz, hotelak 27 logela gehiago izango ditu, 116 izatetik 143 izatera pasako da. Gainera, logelek aire egokitu izango dute, komunak handitu egingo dira, hidromasajetarako bainontziak jarriko dira, Interneteko konexioa izango du eta beste hainbat berrikuntza ezarriko dira. Bestalde, hegal berri bat eraikitzeke udalaren baimena jasotzen badute hasierako inbertsioaz gain 800 milioi gehiago ordaindu beharko dituzte.



Otsailaren 13an Basarrate plazan ehun inguru dantzari gazte bildu ziren ordu beteko agerraldia egiteko. Txurdinaga, Briñas eta Karmeloko euskal dantza ikastaroko umeak ikuskizun paregabea eskeini ziguten eguzkia lagun zutela. Plaza beteak ikasitako hainbat dantzak -Txulalai, esku dantza, jota eta abar- esku zarta handiak jaso zituzten ikusleen aldetik eta batez ere gurasoengandik.

## HEZKUNTZA -JARDUNALDIAK

**MUGA GABEKO IKASGELA HELBURU**

**HEZKUNTZA-JARDUNALDIAK**  
**Martxoak 1 eta 2.**

Begoñako Gizarte Etxea (Txurdinagako kiroldegia)  
Metroko Basarrate eta Bolueta geltokiak.

Martxoaren lehenengo bi egunetan "Bilbao: Muga gabeko ikasgela helburu" lemapeko Hezkuntza-jardunaldiak antolatu dira Begoñako auzo etxean. Informazio eta komunikazio teknologiek eskaintzen dituzten baliabideez, eronkez eta aukerez oharturik, Bilboko Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailarekin eta Euskal Interkulturekin elkarlanean jardunaldi hauek antolatu ditu. Jardunaldi hauek helburu ezberdinak dituzte. Batetik, beste kultura batzuk ikasteko garrantzia aztertzea, eta gogoetak egitea komunikazio eta informazio teknologien erabileraz, gaur egungo gizartearen eskariei erantzutearen aldera. Bestetik, Bilboko udalak eta Eusko Jaurlaritzaren planen helburua informazio eta komunikazio teknologiak esandako arloei atxikitzea da. Bestalde, informazio eta komunikazio teknologiek eskaintzen dituzten baliabideak zabaltzea, hauek curriculumetan sartzen bultzatzea eta Europako programetan ikastetxeen partehartzea sustatzea. Azkenik, irakasleek Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan egindako esperientziak eta praktikak azaltzea bilatzen da. Jardunaldi hauek, Bilboko Udaleko Hezkuntza, Gazteria eta Kirol arloak garatu duen plan giza-hezitzailearen barnean kokatzen dira. Plan hau, Bilboko ikastetxe publiko guztietako irakasle eta ikaslegoa teknologia berrietara hurbil daitezzen diseinatu dago.

Zure  
publizitatea hemen

944 735 448



## PRESOEN ALDEKO AKANPADA TXURDINAGAKO PARKEAN

Gabriel Aresti eta Behekoa institutuek antolatuta, preso enegoera salatzeke asmoz urtarrilaren 25, 26 eta 27an zehar akanpada bat burutu zuten Txurdinagako Europa parkean. Egun horietan Iralan eta Deustuan ere akanpada bana egin zuten. Bertara hurbildu zirenek mahai informatiboak, propaganda banaketa eta 28ko greba orokorrerako ekitaldietan parte hartu zuten, besteak beste

## METROAREN BALANTZEA

Metro Bilbaok 1999. urteko balantzea atera berri du. Urte honetan enpresak jarrita zituen helburu nagusi biak bete egin dira. Batetik, eta lehenbizikoz, berrogeita hamar milioi bidaiari baino gehiago izan ditu eta metropolitarraren finantziario maila %90etik gorakoa izan da. Geltokien erabilerari dagokionez, igoera nabarmena izan dutenen artean Santutxuko (%11,33ko igoera) eta Boluetakoa (%14,51ko igoera) aurkitzen dira. Kontrako aldean Basarrateko geltokia koka daiteke atzerapen garrantzitsua izan baitu (-7,78). Geltoki honetara bidaiari gutxiago doaz Santutxuko igogailu berria jarri dutenez geroztik. Aipatu beharra dago 2000. urtea berrikuntza garrantzitsu batekin hasi dela: gaueko zerbitzua luzatu egin da. Otsailak 19tik aurrera trenak larunbatero ordu erdi ibili dabilta linea osoan, gaueko ordu bietatik goizeko 6ak arte. Bestetik, Metro Bilbaok ihauteriek izaten duten eskarri aurre egiteko zerbitzua hobetu du. Ihauterietako larunbat gauean Plentziarako trenak orduerdi egon dira eta 15 minuturo Bidezabale- ra, norabide bietan eta gau osoan.

### MAHATSERRIKO GELTOKIETAKO BIDAIRIAK

GELTOKIA	1998 URTEA	1999 URTEA	DESBIDERATZEA
Santutxu	3.373.538	3.755.619	% 11,33
Basarrate	1.713.106	1.579.758	% -7,78
Bolueta	994.020	1.138.214	% 14,51

## ZURI BALTZA BERRIRO ERE LIDERGOAN

Nahiz eta jardunaldi batzutan Donostiako Gros-IKE taldearen atzetik sailkatua egon, Santutxuko Zuri Baltza xake taldeak lidergoa berreskuratu du. Hala ere, oraindik erabakitze dago Euskal Ligako txapeliduna zein talde izango den. Azken bi jardunaldietarako oso borroka estua mantentzea espero da Zuri Baltza, Gros-IKE eta Errege Ardid Peñakoen artean. Santutxukoek 25 puntu dituzte, Donostiarrek 24,5 eta Bilboko Errege Ardid Peñakoen 23,5.

**GAIAN S.C.L.**

### LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa

### ANDAMIO BARIK

Telefonoa:  
(94) 669 32 79  
Mugikorra:  
908- 45 16 22

**ANGEL**  
HARATEGIA - URDAITEGIA

Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

**DARDA**  
TABERNA

S.M. Ascension plazan  
Santutxu



Juan Kruz Igerabide, Adunako idazlea, Txurdinaga eskolara etorri zen literaturaz eta umeek irakurritako "txokolate basoan" liburuaz hitz egitera. Umeen

hainbat galderari erantzun ostean igarkizunak asmatzen aritu ziren. Ondoren bertako irratiaz elkarrizketa egin zioten laugarren maila-hitz egitera. Umeen



Santutxuko Txirula Mirulako piratek kafe antzokia aboratu zuten hainbat umeren laguntzarekin. Otsailaren 20an zuten zita bertan zegoen altxorra aurkitzeko. Kanten, dantzen eta jolasen bidez arratsalde alaia igaro zuten. Horma irudian zeuden mezuei jarraituz lortu zuten, azkenean, urrezko txanponen kutxa eskuratzea. Kanpoan urrezkoak baziren ere barruan txokolatezkoak ziren eta halaxe amaitu zen itsas lapurren jaia, umeen pozgarri.

bertan  
MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

## BERTONEN BIGARREN URTEURRENA



Julio Ibarra  
"Auzoko eraginarekin,  
normalki  
karrizketa zabaldu"

Otsaileko alearekin Bertoneko Mahatserriko aldizkariak bi urte bete ditu. Lehenengo alea Julio Ibarri eginiko elkarrizketarekin ateratu. Hainbat, lehen urteurrena azalean Aita Patxi agertuz ospatu genuen eta oraingo honetan Arkaitz Estiballesi eginiko elkarrizketa aurkituko duzue. Bi urte hauetan nolabaiteko hilekotasunez heldu da aldizkaria zuen etxetara. Hemendik aurrera aldizkakotasun zehatzagoz heltzea espero dugu. Horretarako erredaktore lan talde polita osatu eta zuzendari berria fitxatu dugu. Honela jarraituz, Bertonek hainbat eta hainbat urte beteko ditu.

## SANTUTXU H.T.-K LIDERRA GAINDITU


Santutxuko Hockey Taldeak 6 eta 3 irabazi zion Bradol San Antonio taldeari. Garaipen honekin, Santutxukoek lider zegoen talde nafarraren inbatibilitatea hautsi zuten. Honela, Bradol San Antoniok alde nabarmena hartzea ekidituz Ipar Ligak emozioa berreskuratu du. Santutxutarrek bigarren zatiko jokoarekin garaipena erdietsi zuten eta garaipen honi ligako ia bigarren itzuli osoa geratzen dela gehitzen badiogu, liga honetan Santutxutarrek oraindik zer bait esan dezaketela argi dago.

## OTXARKOAGAKO FRONTOIA

Otxarkoagako familia Elkarteak Bilboko Udaleko Kirol Institutuari auzoko frontoiari estalkia jartzea eskatu dio. Famili Elkarteak inguruko auzokideen 400 sinadura baino gehiagoko idazkina aurkeztu du. Era berean, auzoko kirol eskaintza hobetu asmoz, Otxarkoagan kiroldegi bat eraikitzearen posibilitatea ikertzea eskatu dio Udalari.



jo ta ke  
**Otxarkoaga**  
**euskaldundu arte!**  
**Pa... Yak baditu alternatibak**  
**demokratikoak noski!!**



## Lizarra-Garazi Txikia, akordioa gizarteratuz

Arrate Díez

Santutxu-Txurdinaga-Boluetako Lizarra Garazi Txikiaren lehen urteurrena dela eta, lan taldearekin bildu gara talde honen bilakaeraren berri eman diezaguten. Hala, Pedro Blanco (Ezker Batua), Mikel Lizarralde (ELA), Txomin Riaño (EA), Joxe Félix (HB) eta Jose Alcedo (LAB) kideekin hitz egin dugu eta "akordioaren sozializazio prozesua" auzoan aurrera eramateko egiten ari diren esfortzu eta ilusioa azpimarratu digute gauza guztien gainetik.

### Noiz eta nola sortu zen hemengo Lizarra-Garazi Txikia?

1999ko urtarrilaren 21ean sortu zen taldea HB eta EAJren arteko bilkura batzuen ondorioz. Erakunde bi hauen artean Santutxu-Txurdinaga-Boluetako Lizarra-Garazi Txikia eratzea erabaki zen. Era honetan, batzar nagusi bat antolatu zen eta bertara auzoan lanean dauden akordioaren sinatzaileak joan ziren. Batzar honekin taldeari ekin zitzaion eta parte hartzaile guztien nahia Lizarra-Garaziko akordioa gizarteratzea zela erabaki zen. Batzar honetan bi proposamen aurkeztu ziren, bata EAJren eskutik eta bestea HBren eskutik. Proposamenak

eztabaidatu eta zehaztu ziren, ondorioz, auzoko Lizarra-Garazi Txikiaren lehen lan taldea sortuz.

### Zein da zuen talde dinamika?

Lan egiteko dugun era oso sinplea da. Epe ertainerako planifikazioa egiten dugu eta hau lan taldeak eramaten du aurrera. Hilean behin erakunde guztien arteko bilera antolatzen dugu egindako lana eta sor litezken arazoak aztertzeko asmotan. Lizarra-Garazi Txikiko lan taldea, ordea, behar bezain beste biltzen da, talde hau baita bozeramale ofiziala.

### Zer erantzun izan du auzoan Santutxu-Txurdinaga-Boluetako Lizarra-Garazi Txikiaren sorrerak?

Alde batetik, Mahatserriak badaki Lizarra-Garaziko akordioak existitzen duela, akordioa bera buzzoneatu bainenuen aurkezpenerako konbokatorekin batera. Hala, maiatzaren 13an aurkeztu orokorra egiterakoan María Reinako aretoa jendez bete genuen.

Era berean, organismo guztiengana izan dugun hurbilketa azpimarragarria da, bereziki, irakaskuntza arloan, kirol aisialdi-kultura arloan, zein Eliza

munduan. Arlo honetan hiru mahai inguru egin ditugu, eta nahiz eta organismo ezberdinetakoak agertu, ez ziren denak egon. Beraz, gu behin eta berriro hurbilduko gara hoiengana. Bestaldetik, lan hau aurrera eramaterakoan, entitate ezberdinen gaitasuna hurbilketa garrantzitsua izan zen. Hau da, lehenbizi, aurkeztu eskutitza bidali genien. Ondoren, entitate bakoitzera hurbildu ginen, pertsonalki hitz egin genuen eta parte hartzea gonbidatu genituen.

### Espero zenuten erantzuna izan al da?

Egia esan, erantzuna ez da espero genuena izan, batez ere, irakaskuntzaren arloan. Mahatserriko eskola, ikastola eta institutu guztietara zuzendu gara, baita guraso elkartei, zuzendariei, ikasle zein irakasleei ere gonbidapena luzatu genien. Agertu zen jende kopurua ez zen proportzionatua izan, baina agertu zirenek interes handia eta lan egiteko gogoia erakutsi zuten.

Lehen fase honetako asmoa Lizarra-Garazi auzoan ezagutzera ematea izan da, besteak beste. Fase honetan, bi azpiatal bereizi ditugu; batetik,





maiatzaren 13ko aurkezpenari begira egindako lana, eta bestetik, auzoari talde honen existentzia eta izaera ezagutaraztea. Ezagutzera emateko sistema ez da soilik postaz gutun batzuk bidaltzea izan, akordioaren nondik norakoak eta filosofia azaltzeko elkarrizketak ere antolatu ditugu. Beraz, lehen fase hau positibotzat jo dugu, hau da, Lizarra-Garazi auzoan gizarteratu dugu; Lizarra-Garaziko akordioa sinatutako erakundeok osatzen dugun talde bat da, bizirik dagoela eta bertan gaude-nak lanean gogoz ari garela erakusten saiatu gara.

**Ze asmo duzue hemendik aurrera?** Hemendik aurrera lehen fase honen balorazioa egin ondoren, bigaren fase bati ekingo diogu. Taldearen helbururik zehatzena akordioa sozializatzea da, baina ez bakarrik jendeak akordioa zer den jakin dezan, baizik eta akordioaren partehartzaile aktibo bihurtu eta, bide batez, akordioa bereganatu eta aldarrika dezan.

**Ze harreman daukazue Lizarra-Garazi Iraunkorrekarekin?** Donostian Lizarra-Garazi Txiki guztien bilera bat egin zen eta bertan konpromiso batzuk hartu ziren, besteak beste Lizarra-Garazik indar gutxi dituen auzoetara hurbildu eta zabaltzea. Akordioan dauden gaien inguruko lan batzordeak sortuko dira, hau da, lurraldetasunaren ingurukoak, subjektuaren ingurukoak, ... era berean, ba-

tzorde hauetako ondorioak Lizarra-Garazi Txiki guztiei jakinaraziko zaizkie. Azken batean, Lizarra-Garazi Txikiak akordioa gizarteratzea dute helburu, eta bakoitzak bere erritmoa dauka. Bilbon, bereziki, koordinadora bat antolatu da, eta egindako lanaren berri izateko asmoz bilerak izan ditugu. Santutxu-Txurdirinaga-Boluetako Lizarra-Garazikook edonolako erabaki edo ekitaldiren bat antolatzen dugunean informazio hori zuzenean egoitza nazionalera bidaltzen dugu jakinararen gainean egon daitezten. Beraz, harreman oso ona da.

**Zer ekarri dio Lizarra-Garazi Txikiak Mahatserriari?** Ekarpenean bat talde txiki batek errealitate juridiko-politikoak aldatzeko zeozer egin dezakeela izan daiteke. Lizarra-Garazik duen bertute adierazgarri bat, berau osatzen duten taldeek herrenka dabilen ordenu konstituzionala kolokan jartzea da. Lizarra-Garazi goitik oinarrira jaisten ari gara, hau da, kate sozialeko azken muturreraino heldu behar da eta hori da, hain zuzen, guri dagokigun egin beharra.

Lizarra - Garaziren ekarpenik garrantzitsuena komunikazioa ahalbidetzea da. Hala, praktikan erakutsi dugun moduan, elkarrizketaren bitartez kultura eta jatorri ezberdineko hamasei erakunde mahai baten inguruan batu gara eta arazorik gabeko aldizkako batzarrak egiten ditugu helburua zein

den denok oso argi izanik. Era honetan, erritmoak errespetatzea, gelditzen jakitea, astirago joatea, noiz sakatu behar den asmatzea, ... eginahal hori oso garrantzitsutzat jotzen dugu eta epe ertainera bere fruituak eman behar ditu. Aldi berean, akordioa sinatu duten erakundeen artean sortutako giroa azpimarratu nahiko genuke, begirune eta elkarrizketarako giroa hain zuzen.

Beraz, Lizarra-Garazirekin harremanetan jartzeko interesa duten pertsona guztiei honako telefono mugikorra eta posta kutxa hau ditugula jakinarazten diegu: tfnoa: 656-739499 eta PK 7110. Bilbao 48004.

### NOLA IKUSTEN DUZU EUSKAL HERRIKO EGOERA?

#### JOXE FELIX ( Herri Batasuna)

Euskal Herriko gehiengo sozialak gizarte duin bat nahi duela erabaki du, botere estatalek, ordea, beren eskuetan dauden traba guztiak jartzen dituzte benetan izan nahi duguna izan ez gaitezten. Frantziar eta Espainiar estatuek, beraiek mantentzen dituzten alderdiekin batera, ez dute herri honek bere etorkizunaren jabe izateko duen esku-bidea onartu nahi. Guk, prozesu honen partehartzailea euskal gizartea oro har izan daitela nahi dugu, baina bitartekoak zein pertsonak indarrez kentzen dizkigute oraindik ere; era berean, gogora ditzagun askatasunaren alde borrokatzeagaitik dauden ehundaka preso eta ihes egin behar izan dutenek ezin dutela parterik hartu; guzti hau hedabide batzuek egiten duten intoxikazio informatiboarekin batera. Hala ere, demokratik baikorak gara mahai baten inguruan biltzeko eta urteetako arazoei irtenbidea emateko; oinarriak finkatzeko gai izan gara, beraz, erabaki historikoa. Ez da soluzio arina eta erraza izango, baina etengabe lan eginez gero, desiatutako amaiera ikusiko dugu. Ezin gara inola ere norbaitek konponduko ote duen zain egon, guk geuk parte hartu behar dugu aurrera jo dezagun. Eta Euskal Herrian aurrera jotzeak, gaur egun, herri gisa bizitzen hastea

esan nahi du, gure hizkuntza eta kulturarekin, hain zuzen. Gizarte duin bat garatu, ezbardintasun sozialak ekidin eta lana guztion artean banatu, besteak beste.

Parisi eta Madrili begira ez egoteko garaia heldu da, euskaldun guztion artean etorkizuna garatzeko ordua da. Gure lan indarrarekin abiatuta, gaur egun oraindik zalantzan dagoen jendea bildu behar dugu. Hauek gure lanaren zergaitiak ulertu bezain laister, danak elkarrekin gure herriaren askatasunean aurreratu dugu.

#### PEDRO BLANCO ( EZKER BATUA )

H a u t e s k u n d e garaian gaudela ezin daiteke ukatu eta, zoritxarrez, honek eragin handia du gugan, ez baitugu nahikoa indarrik edukiko diskurtso nagusiak apurtzeko.


Nire ustez, egituraketa sozialeko arazo bat dago egoera sozio-ekonomikoak eragindakoa. Egoera honetan, indibidualismoa da nagusi gauza guztien ginetik.

Lizarra-Garazi aurrera joateak elkartasunerako lekua uzten du, gainera, Lizarra-Garaziren inguruko edukin soziala nola gauzatu eta gizartea akordioaren inguruan nola bateratu lan-tzen da. Beraz, gaur egungo egoera politikoan aukerarik positiboena dela uste dut.

#### TXOMIN RIAÑO ( EUSKO ALKARTASUNA)

Momentu honetan Euskal Herriak atzera bueltarik ez duen ilusiozko prozesu bat bizi du. Beste edozein prozesutan bezala, gora-beherak egon daitezke, baina, hala ere, atzera bueltarik ez duela uste dut. Helburua Lizarra-Garaziren bitartez lortuko da, mahai gainean jarri den akordio demokratiko bakarra baita. Bestaldetik, nire ustetan, Euskal Herrian gizartea oso politizatua dago;

badirudi Euskal Herriak arazo bakar bat duela eta berau arazo politikoa dela. Bestelako arazoak ere baditu Euskal Herriak, besteak beste, arazo kultural eta sozialak, baina ia ez da beraiei buruz hitz egiten. Eta gure ustez beste arazo horietan ere parte hartu behar dugu, ezin baita gizarte independente batetan bizi arazo



sozial larriak baldin badaude, adibidez. Hau dela eta, prozesu hau ilusioz eta aurrera jarraitzeko gogo handiz bizitzen ari gara.

#### MIKEL LIZARRALDE ( ELA sindikatu)

Nire ustez, egoerak ez du atzera bueltarik, hau da, ez dut uste iraganeko etapataraz itzuliko garenik, Lizarra-Garazik ez du atzera biderik. Bestalde, ni nahiko kritikoa naiz, batez ere, Lizarra-Garaziren dauden alderdi politikoekin, hamabost hilabete pasatu ta gero, ez baitira gai izan adostasun batera iristeko. Tartean hauteskunde politikoa direla, badirudi eragin handia dutela eta proposamen bateratuak egitea asko kostatzen zaie. Beraz, honek hala-nolako eragina izan dezake Lizarra-Garaziren. Lizarra-Garazik ahalik eta base sozial handiena behar du, eta base hau edukin soziala dela medio lortu behar da, nire ustez. Era honetan, gutxiengo soldata ona, langabezia gutxi, zerbitzu sozial onak, etabar lortu behar dira

jendeak ikus dezan hemen dituen zerbitzuak, soldatak, prestazioak, ... beste tokietan baino hobetoak direla. Bide hori litzateke egokiena ahalik eta base sozial handiena lortzeko Lizarra-Garazirako. Ildo honetan, derrigorrezkoa dugu lan harremanetan euskal esparrua. Berau gauzatzeko bakea behar dugu

eta tregua beharrezkoa da. Hala ere, gelditu honen arduradun handienak Frantziako eta Espainiako estatuak direla azpimarratu nahi dut, ez baitute aukera paregabe hau aprobetxatu herri honetara bakea ekartzeko.

#### JOSEBA ALCEDO ( LAB sindikatu)

Garai hauetan etorkizuna baikortasun handiz ikusi behar dugu, gauzak ez dira lehen bezelakoak izango eta Lizarra-Garaziren konpromisoan sakondu behar dugu akordioaren filosofia jarraituz. Nik baikorra izan nahi dut, erakunde sindikalekin adibidez, esperientzia positiboak izan ditugu eta beti jo dugu aurrera. Errealitatea bera aztertuz gero, Lizarra-Garaziren esperientzia gizarte orri zabal diezaiokegu eta orain arte lortutakoa baino askoz gehiago lor daiteke. Alderdi politikoei dagokienez, gora-behera handiak egon badira ere, daukagun ilusio guztia ez dudu inola ere desbideratu behar.



## HAUR ESKOLAK MAHATSERRIAN (I)



Otxarkoagako haur eskolako ume batzuk bazkaltzen.

Azken urteotan hartzaindegi eta haur eskolen gaineko berriak bolo-bolo dabiltza komunukabideetan eta ume txikiak dauzkaten gurasoen artean. 1998ko udazkenean Gipuzkoako haur eskolen koordinakundeak mobilizazioetara jo zuen Foru Aldundiak subentzioak kenduko zizkielako. Azken udazken honetan, bestalde, Gasteiztik heldu zitzaizun berria. D eredu, ume 11 gehien batzen zuen eredu, hain zuzen ere, desagertuko zela ezagutzera eman zuen Gasteizko udalak nahas mahas izenda genezakeen eredu baten mesedetan. Hile honetan bertako udalak atzera egin badu ere argi utzi digute PPko agintariek zein den euren jarrera euskara eta haur eskolen gainean. Dena den, aldaketarik handiena 1997an gertatu zen eskola publiko, ikastola eta bestelako ikastetxeak 2 urteko gelak zabaltzen hasi zirenean. Horrek, berez, pozgarria denak bere infrentzua, bere iruntzia

dauka. Hainbat eta hainbat hartzaindegik bertan behera utzi behar izan dituzte euren beharlekua. Orain dela 10 urtetsu hartzaindegiak nonnahi topatzen genituen, perretxikoak bezala sortzen ziren eta. Santutxuko Santa Klara plazan adibidez hiru batera egon ziren. Gaur egun, berriz, urri dira eta lerrenak eta bost egiten dituzte ez itozteko.

Gure Mahatserri honetan zein den egoera aztertu dugu eta zuei eskaintzea pentsatu dugu. Alde batetik Elisabete Bizkarralagorarekin, Bilboko Udalaren Hezkuntza eta gazteria sailaren arduradunarekin hitz egin dugu Otxarkoagan udalak zabaldu duen Francisco de Goya hartzaindegiaz eta bestetik bertan ekintzen ekinez dirauten bi hartzaindegi euskaldunak: ALAI eta SEINTXU.

Artikulu honek luze samar jo zezakeela eta bi zatitan banatzea erabaki dugu.

Elisabete Bizkarralagorarekin, Bilboko Udalaren Hezkuntza eta Gazteria sailaren arduradunarekin elkartu ginen erakunde honek haur eskolen gaineko politikaz hitz egiteko. Bizkarralagorra andreak azaldu zigun udalaren aldetik arlo horretan egoera hobetzeko beharrian ari direla.


Horretarako bi lanetan dihardute, alde batetik Bilbo Zaharrea eta, ikasturte honetan, Otxarkoagan zabaldu dituzten haur eskoletan eta bestetik arlo honi dagozkien beharren azterketan: bai zenbat ume dauden 0-3 urte bitartean bai zenbat hartzaindegi edo haur eskola dauden udalerrian.

1998an Bilbo Zaharrea udalak lehenengo haur eskola zabaldu zuenetik hezkuntzaren atal garrantzitsu hau urteetako bazterkeria eta utzikieratik irteten hasi zen. Aurreko urteko urrian, berriz, gure mahatserrian, Otxarkoagan, zabaldu zuten hurrengo eta datorren urterako udalerriko

### Haur eskolak Mahatserrian

beste barrutiren batean zabaltzeko asmoa dute. Bestaldetik, Udaletik adierazi ziguten hiru hilabete barru osoko bilkuran haur eskolen geroz eta irtenbideez arituko direla eta Bizkarralagorra andreak sailatik proposamenen bat jorratuko dela. EUDELeK, Euskadiko Udalen Elkarteak, udalei haur eskola gehiago ez zabaltzeko gomendatu die, haren ustez eskumena hezkuntza sailarena delako.

Egoera, egia esanda, nahasia eta askotarikoa da udalerrian eta mahatserrian ere. Alde batetik



### STEE-EILAS sindikatuaren iritzia

Orain arte, E.E.An 0-3 urteko haurren hezkuntzaren ardura, Udal, Foru Aldundi eta zenbait ikastetxe pribatuen artean banatuta egon da, beraien artean aberasteko baino herriari zerbitzu bat eskeintzeko asmoz sortutako ikastetxe pribatu batzuk aipatu behar direlarik. Udal eta Foru Aldundiek, zerbitzu hauetarako jartzen duten diru kopurua ez da izaten inolaz ere nahiko eta familiek bermatu behar izaten dute beste guztia, kuota garestien bidez. Haur txikien hezkuntzarako eskeintza urria da oso... Hau honela izanik, inolaz ere ez da bermatzen haurren hezkuntzarako eskubidea, batzuk hartzaindegira joateko aukera izango dutelako eta beste batzuk, ekonomia arazo dela bide, ez. Hemen azaldutako guztiagatik, STEE-EILASek zera esan nahi du: behar beharrezkoa dela, Hezkuntza sailak bere esku hartzea 0-3 urteko haurren hezkuntza alorra. Hau eskatzeko LOGSE, Euskal Eskola Publikoaren legea eta Errege dekretuan oinarritzen gara, hauetan agintzen denaren arabera, Hezkuntza Sailaren ardura baita, Haur Hezkuntza garatu eta koordinatzea. Sektore guztietatik Eusko Jaurlaritzari presionatzea legez dagozkion erantzunkizunak bere gain har ditzan, begi onez ikusten dugu. Baina EUDELeK egindako proposamenarekin ez gatoz bat, udalak inplikatzin ez badira hartzaindegien beharretan arazoa larriagotuko litzatekeelako.

ikastetxe, ikastola eta eskola publiko ia guztietan 2 urteko gelak zabaldu dituzte. Bestetik irabazirik gabeko elkarteak sortutako haur eskolak daude SEINTXU, esaterako. Hirugarrenik, haur eskola pribatuak bai proiektu pedagogikoak dauzkatenak ALAI bai inongo proiektu pedagogikorik gabekoak. Azkenik, Bilbao Bizkaia Kutzak sustatutako haur eskolak.

Guk, aipatu bezala, hiru jorratuko ditugu: Urrian udalaren ekimenez zabalduko Francisco de Goya haur eskola (Otxarkoaga), SEINTXU (Santutxu) eta ALAI (Zurbaranbarri).

**Baserritik**  
etxerainoko  
OKELA ZERBITZUA

Eskaerak egiteko:

- Telefonoa eta Faxa: 94 433 48 02  
- Orduetgia: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara

**E.H.N.E.**

BASERRITIK ETXERA: Euzko Hezkuntza Zuzendaritza  
Tolosa, 11. 48.310 LEMOA. Telefon: 94.631.43.04

**DAYTON**  
Reagge-festa  
taberna

Santutxuko poteo gunean

**ekilore**

Iturriaga, 92

Santutxu



Haur eskolak Mahaterrian

GURASOEN ESKOLA

Otsailean bertan Francisco de Goya haur eskola ekimen interesgarri bati hasiera emango dio, gurasoen eskola alegia. Bertan jagoten dituzten umeen gurasoei zuzenduta dagoen eskola honek heziketaren lagungarri eta osagarri izan nahi du. Bertako zuzendariak azaldu zigunez talde heziketa honen bidez heziketaren ardura eta zer eginei hobeto heltzea lortu nahi du, guraso heziak eta informatuek eragin zuzenagoa eta hobea izan baitituzkete euren umeen garapenean. Helburuak asko dira, bai eta jorratuko diren gaiak ere; bikoteen harremana, guraso-semealaben arteko harremanak, osasuna, eskola huts egiteak eta abar. Hala ere arratsaldeetan burutuko diren saioak zehazteko datorren astean ateratzen diren datuei itxaron beharko zaie.

FRANCISCO DE GOYA HAUR ESKOLA

Urriari 10 ikaslerekin hasi zirenetik etengabe izan da etorri diren umeen jarioa, gaur egun 25 edukitzeraino. Zuzendariak esan zigun bezala kapazitatearen muga mugan daude. Umeak 3 geletan banatzen dira, batean eskola publikoaren eraikinaren barruan 16 hilabetetik



bi urte artekoak izaten dira eta haur eskolaren barruan 4 hilabetetik 16 hilabete arteko umeak bertan dauden bi geletan. Sehaskak eta umeen aldagelak daude batean eta jantokia eta logela bestean. Beraz zerbitzu batzuetarako erabiltzen dituzte. Bi urteko umeak eskolak berak hartzen ditu. Suspergintza elkarteak daraman eskola hau Bilboko Udalak diruz laguntzen du eta era guztietako laguntza eta arreta jaso dute bertatik. Ondotan duten BBKren haur eskolatik ere laguntza jaso dute. Hasiera batean konpetentzia sor daitekeela pentsa bazitekeen ere, dirudienez, ez da horrela eta haur eskola biak beteta daude. Umeei dagokielarik era guztietakoak daude eta hasiera batean San Franziskoko haur eskolarena bezalako egoera topatzea espero bazuten ere antz handirik ez dago egoera askoz normalizatuagoa dago eta. Ume gehienak erdaldunak izan arren euskaldun batzuk ere badaude.

# "Eguzki lorea" mendirik-mendi dabil

*Duela urte batzuk, Boluetan, "Eguzki lorea" sortu zen. Izen berezi hau bertako mendi taldeari dagokio. Ikusten denez, auzo honetan, beste hainbat lekutan bezala mendiak erakarpena sortzen du. Erakarpen hori sentitzen zutenen artean mendi taldea sortu zuten. Urte hauetan, hainbat irteera egin dituzte eta Boluetako mendizaleek hain gustoko duten mendiaz benetan gozatzeko aukera izan dute.*

Orain dela zortzi urte gutxi gora-behera, Boluetako auzo etxearen irekierarekin batera elkarteentzako lokal bat zabaldu zuten (auzo etxean bertan). Lokal hau Udalak itxi ez zezan eta nolabaiteko edukina eman nahirik, talde ezberdinak sortzen hasi ziren. Talde hoiaren artean, Boluetako "Eguzki lorea" mendi taldea aurkitzen zen. Honekin lotuta, gaur egun aipatzekoa da sortu ziren talde guztietatik geratzen den talde bakarra berau dela. Mendi talde hau 20 bazkide fundatzailek eratu zuten eta denak Bolueta edo inguruetakoak ziren. Hala ere, azken urteotan antolatatu izan dituzten ekintzek erakarpena sortarazi dutelako edo, leku askotako jendea hurbildu zaie. Hau honela, Boluetaz gain beste hainbat auzotako bazkideak aurkitzen ditugu bertan. Urtero, ziurki ordaintzen dutenen bazkideen batzabestekoa 60 ingurukoa da (urte batzutan 70tik gora ibiltzen dira eta beste urte batzutan 50 inguru). Baina denetara, bestelako kideak kontutan izanik, 100dik gora bazkidek osatzen dute mendi taldea. Honez gain esan beharra dago bazkideen portzentaia altu bat federatua dagoela. Taldekoek federatzea gomendatzen dute, batez ere segurtasunagatik eta erreskate edo antzeko arazoren baterako balioagarria delako. Mendi talde honetan jende gehiena gaztea da. Batzabestekoa 20-30 urte bitartekoa da, zaharrena 40 urte ingurukoa izanik. Irtereei dagokionez, urtero egutegi bat prestatzen dute ofizialki antolatutako 10-12 irteeraz osatua. Irteera hauek finkoak dira, egutegian markatutakoak. Hauetaz gain, beste irteera berezi batzuk egiten dituzte. Hauek, lagunaren artean bildu eta prestatu egiten dituzte; kuadrila ezberdinek egiten dituztenak dira. Beraz, urtean irteera ugari egiten dituzte. Aurten egin dituzten irteeren artean aipagarriak dira klasikoak bihurtu diren Aizkorri eta Txindokira egindako ibilaldiak. Bestalde, urte hauetan beste hainbat lekutara joan izan dira: Gredos-eko mendizerrara (Almanzor gailurrera) neguan, pirineoetara 3.000 metrotik gorako gailurrak igotzera... Gainera mendi talde honetako batzuk Himalayan ibilitakoak dira eta aurten Sagarmatha-ra joateko asmoa daukate. Ikus daitekeenez maila guztietako mendizaleak biltzen dira "Eguzki lorean". Diru laguntzak urtero eskatzen dituzte eta aurten Udaletik materiala ersoteko diru laguntza jaso dute. Gero, materiale hau erabili nahi duenarentzat algeran jartzen dute. Beste urte batzutan (ez da izan aurtengo kasua), irteerak egiteko diru laguntzak ere jaso izan dituzte. Irteera hauek, Boluetan zeudenean auzoari begira egindakoak ziren; auzoko norbaitek joateko gogoia bazuen apuntatu eta joan zitekeen. Gaur egun, Begoñako auzo etxean biltzen dira asteazken eta ostegunetan 7etatik 9ak arte. Hau honela, Bolueta edo ingurukoa izanik eta mendia gustoko baduzu badakizu nora zuzendu. Animo eta "ikus mendizaleak..."

**"Galtzen ez den taldea ezin daiteke mendi taldea kontsideratu"**



"Eguzki Lorea"-koak iazko Martxoan Somiedora (Asturias) egindako irteeran.

**Testoa: Unai Cuevas**

### "EGUZKI LOREA"REN URTEBETETZEA

Aurten, Boluetako "Eguzki Lorea" mendi taldeak 10 urte betetzen ditu. Urte hauetan, sarritan galdu dira baina arinago edo beranduago guztietan heldu dira tontorrera. 2.000. urtea, ospakizunen urtea izango da beraiantzat eta horretarako hainbat ekintza antolatu dituzte. Ekintza hauen berri eta urteurrenaren berri jakiteko Bertan beraiekin egon da solasaldi atseginetan.

#### -Nola ospatuko duzue 10. urteurrena?

Horretan gabiltza. Hasiera baten, mendiko argazkien erakusketa bat egingo dugu, hitzaldiak egongo dira, ikastaroak etab. Filminak ere jarriko ditugu, eta besteak beste orain dela gutxi Aconcaguatik etorri berri den taldeko mutil batek ekarri dizkigunak, Tibetean egon den beste batek ekarritakoak edota Himalayan egon den beste batenak ikusi ahal izango dira. Batez ere gauza ekonomikoak antolatu ez baitugu subentziorik jasotzen. Jasotzen dugun diru bakarra urtero bazkideek jartzen duten 1.000 pezeta dira.

#### -Bazkideen kontua nola joan da urte hauetan?

Mugimendu asko egoten da. Jendea urte batetan apuntatzen da eta hurrengoan ezabatu egiten da edota mendira joateari uzten dio. Egia da ere, taldea Boluetatik hona (Begoñako Auzo Etxea) pasa zenean jendea galdu zuela. Dirudienez zentru honek ez du besteak haina jende erakartzen. Boluetan zentrua auzokoagoa zen, bakarrik hiru talde geundelako baina zentru hori izatea ez zen errentagarria Udalarentzat.

#### -Hamar urte hauetan pasadizu edo anekdotaren bat biziko zenuten.

Galtzearena. Guretzat ez dago galdu gabeko irteerarik. Bidezidor bat dagoela, ba goazen hortik! Baina ez da lan gabeko bidezidorrik. Bide alternatiboak bilatzen ditugu. Baina tirala, hori abentura da eta ederki pasatzen dugu. Mendian galtzen ez den taldea ezin daiteke talde kontsideratu.

### Batzuk Himalayan ibilitakoak dira eta aurten Sagarmatha-ra joateko asmoa daukate.

#### -Zeintzuk dira etorkizunerako dituzuen planak?

Aurten badugu landutako egutegi bat. Irteera ofizialetaz gain, eta urteurrena dela medio "ehuneko mendizalea" deiturikoa egiten ari gara nolabait itzaltzen hasia zen jendea pixka bat erakartzeko edo jende berria erakartzeko ere. Honekin, jendea Euskal Herriko geografia ezagutzeko aukera ematen diogu. Ehun mendi hauek betetzeko gutxienez bost urte eta gehienez hamar urteko tartea dugu. Momentuz, aurten hogeit hamazazko mendi irteerak proposatzen egina dago eta ikusiko dugu zer nolako eragina izaten duen jendearengan. Ehun mendi hauek igo eta gero Federazioak emandako diploma bat lortu daiteke eta honekin bakoitzak eman nahi dion esanahia ematen dio. Geografia egiteko modu bat da, irtetzeko modu bat, motibatze beste era bat.

ERAKOZKETA

OTABAIA




# BATXIKABO (1.173 m.) LA MOTA (1.319 m.) Barrio-tik

Urduña mendatea igaro ondoren Espejo herrira heldu behar gara, herri honetatik eskumalderantz Barrio herrira joko dugu (5 kilometro), kotea eliza eta hilerri ondoan utziko dugularik.

Hemen bertan pista zabal bat hasten da eta hemendik abiatuko gara pinu tartean, hoge minututara eta biragune batetan "KAIRN" (A) eta aurrertxoago ikur gorri bat duen harri handi bat ikusiko dugu; Kairn eta harriaren artean dagoen bide zabala hartu eta gero, laster bidezka estua bihurtzen da eta oso itxia joango da sastrakaren tartean, hamar minututan pista (B) zabal batetara helduko garelarik.

Orain ezkerretara jo eta denbora laburrean mendi lepo zabalean egongo gara, hemen beste Kairn (C) bat dago eta berak bideratuko gaitu bidezka itxi batetara, hemendik aurrera bidezka ezpelez beteta dago eta ordu erdi inguruan tontorrean aurkituko gara, 1.173 m. txartel katxa eta burdinazko gurutzea (honek tximistorratza dauka) daude. Guztira ordu bete. Gure helburua betea badugu ere, ingurua polita denez eta gehiago ibili nahi dugunez aurrera jarraitu dugu ibilbidea.

Norabide berberetik jo, beraz zuzen, lehenbizi gailurreriatik eta gero barrukaldetik eta beheant, beti bidezka eskutitik eta zuhaitz tartean ibiliz zabalune batetara heldu arte (Batxikabo-tik 20 minutu), hemen Kairn (D) bat ikusiko dugu pista ondoan, pista hau utzi eta gorago dagoen besta pista bat hartuko dugu eta orain haitzpetatik norabide berbera jarraituz, ordu erdi barru lepo handi batetara helduko gara. Inguru honetan iturria aurki dezakegu askarekin, ezker aldean burdin-hariz egindako hazia dago, berau zeharkatuko dugu pasabide batetatik eta bertotik ikusten den bidezkatik igongo gara, orain pagadi ederretik; azkenean ahuntz-bide antzekotik eta harkaitza artean igongo garelarik tontorra lortu arte (La Mota 1.319 m.). Itzultzeko lehen aipatu dugun iturrira jaitsiko gara, ezker aldetik eta beheant ia zuzen pista bat ikusten da, beronek eramango gaitu eliza ondoan utzi genuen kotxeraino.



BARRIO  
BATXIKABO  
LA MOTA

## "Ez ninduke harrituko Egañaren txapela emakumeren batek izatea"

Nahikoa ezaguna da Txurdinagan urtero egiten den bertso saioa. Baina nor da honen arduraduna? Kirikiño ikastolako irakaslea den Sebas Angoitia, alegia. Zeanurin jaio, hainbat herritan bizi, baina azken hogeita bost urteotan "hain herri polita den Artea" bizi den bertsozale amorratua, hain zuzen ere.

Erdoitza Martínez  
Iratxe Ruiz

**berton:** Zein da urtero Txurdinagan egiten duzuen bertso-saioaren helburua?

**Sebas:** Alde batetik inguruko gazte askoren bertso gose-egarria asetzarren eta antolaketa-aren ardura gazteek eurek har dezaten. Saio ostean Kirikiño Ikastolako jantokian afaritxo bat egiten da bertsolari eta gazteon artean. Afari eta afaloste aberasgarriak gazteentzat.

**berton:** Zer nolako papera betetzen duzu bertsolaritza munduan?


**Sebas:** Beste edozein bertsozalerena esango nuke, nire bizitzako egoerak bertso eta bertsolariekin harreman estua izatea badakarkit ere.

**berton:** Zure ustez eskolek mundu honi laguntza eskeintzen diote?

**Sebas:** Bai borobila eman behar. Duela berrogeita hamar urte nork esango ziokeen Uztapideri bertso-eskola ugari sortuko zela

...dakigunok egin daigun ba egiten dogun baño sarriago, ta eztaigun aztu Egañaren zimendua euskerea dala, au galtzen ba iaku, joan zan sekulako gure Erria."

*Sebas Angoitia*  
1902-1-12







## GALDERA LABURRAK:

### FITXA:

Izena: Sebas  
 Abizena: Angoitia  
 Jaioterria: Zeanuri  
 Jaioteguna: 1949-I-19  
 Lanbidea: Irakaslea  
 -Kirikiño ikastolan-  
 Bertsolaritza  
 munduan egindako  
 gauzak:  
 "Besteek esan besate"

## GALDERA LABURRAK:

Gizonezko baten izena:  
*Aitzol*

Irakasgai bat: *Filosofia*

Hizkuntza bat: *Euskara*

Ametz bat: *"Lortu omen dugu"*

Mendia ala hondartza:  
*Mendia*

Bapateko bertsoa ala paperekoa:  
*biak*

Herri bat: *Euskal Herria*

Kanta bat: *Euskal Herrian  
 euskaraz*

Bertsolari bat: *Xalbador*

Pertsonai historiko bat:  
*Sokrate*

Emakumezko baten izena:  
*Itziar*

Gizonezko baten izena:  
*Aitzol*

Irakasgai bat: *Filosofia*

Hizkuntza bat: *Euskara*

Ametz bat: *"Lortu omen dugu"*

Mendia ala hondartza:  
*Mendia*

Bapateko bertsoa ala paperekoa:  
*biak*

Herri bat: *Euskal Herria*

Kanta bat: *Euskal Herrian  
 euskaraz*

Bertsolari bat: *Xalbador*

Pertsonai historiko bat:  
*Sokrate*

Emakumezko baten izena:  
*Itziar*

Gizonezko baten izena:  
*Aitzol*

Irakasgai bat: *Filosofia*

Hizkuntza bat: *Euskara*

Ametz bat: *"Lortu omen dugu"*

Mendia ala hondartza:  
*Mendia*

Bapateko bertsoa ala paperekoa:  
*biak*

Herri bat: *Euskal Herria*

Kanta bat: *Euskal Herrian  
 euskaraz*

Bertsolari bat: *Xalbador*

Pertsonai historiko bat:  
*Sokrate*

Emakumezko baten izena:  
*Itziar*

Gizonezko baten izena:  
*Aitzol*

Irakasgai bat: *Filosofia*

Hizkuntza bat: *Euskara*

Ametz bat: *"Lortu omen dugu"*

Mendia ala hondartza:  
*Mendia*

Bapateko bertsoa ala paperekoa:  
*biak*

Herri bat: *Euskal Herria*

Kanta bat: *Euskal Herrian  
 euskaraz*

Bertsolari bat: *Xalbador*

Pertsonai historiko bat:  
*Sokrate*

Emakumezko baten izena:  
*Itziar*

Gizonezko baten izena:  
*Aitzol*

Irakasgai bat: *Filosofia*

Hizkuntza bat: *Euskara*

Ametz bat: *"Lortu omen dugu"*

Mendia ala hondartza:  
*Mendia*

Bapateko bertsoa ala paperekoa:  
*biak*

Herri bat: *Euskal Herria*

Kanta bat: *Euskal Herrian  
 euskaraz*

Bertsolari bat: *Xalbador*

Pertsonai historiko bat:  
*Sokrate*

Emakumezko baten izena:  
*Itziar*

Gizonezko baten izena:  
*Aitzol*

Irakasgai bat: *Filosofia*

Hizkuntza bat: *Euskara*

Ametz bat: *"Lortu omen dugu"*

Mendia ala hondartza:  
*Mendia*

Bapateko bertsoa ala paperekoa:  
*biak*

Herri bat: *Euskal Herria*

Kanta bat: *Euskal Herrian  
 euskaraz*

Bertsolari bat: *Xalbador*

Pertsonai historiko bat:  
*Sokrate*

Emakumezko baten izena:  
*Itziar*

Gizonezko baten izena:  
*Aitzol*

Irakasgai bat: *Filosofia*

Hizkuntza bat: *Euskara*

Ametz bat: *"Lortu omen dugu"*

Mendia ala hondartza:  
*Mendia*

Bapateko bertsoa ala paperekoa:  
*biak*

Herri bat: *Euskal Herria*

Kanta bat: *Euskal Herrian  
 euskaraz*

Bertsolari bat: *Xalbador*

Pertsonai historiko bat:  
*Sokrate*

Emakumezko baten izena:  
*Itziar*

Gizonezko baten izena:  
*Aitzol*

Irakasgai bat: *Filosofia*

Hizkuntza bat: *Euskara*

Ametz bat: *"Lortu omen dugu"*

Mendia ala hondartza:  
*Mendia*

Bapateko bertsoa ala paperekoa:  
*biak*

Herri bat: *Euskal Herria*

Kanta bat: *Euskal Herrian  
 euskaraz*

Bertsolari bat: *Xalbador*

Pertsonai historiko bat:  
*Sokrate*

Emakumezko baten izena:  
*Itziar*

Gizonezko baten izena:  
*Aitzol*

Irakasgai bat: *Filosofia*

Hizkuntza bat: *Euskara*

Ametz bat: *"Lortu omen dugu"*

Mendia ala hondartza:  
*Mendia*

Bapateko bertsoa ala paperekoa:  
*biak*

Herri bat: *Euskal Herria*

Kanta bat: *Euskal Herrian  
 euskaraz*

Bertsolari bat: *Xalbador*

Pertsonai historiko bat:  
*Sokrate*

Emakumezko baten izena:  
*Itziar*

Gizonezko baten izena:  
*Aitzol*

Irakasgai bat: *Filosofia*

Hizkuntza bat: *Euskara*

Ametz bat: *"Lortu omen dugu"*

Mendia ala hondartza:  
*Mendia*

Bapateko bertsoa ala paperekoa:  
*biak*

Herri bat: *Euskal Herria*

Kanta bat: *Euskal Herrian  
 euskaraz*

Bertsolari bat: *Xalbador*

Pertsonai historiko bat:  
*Sokrate*

Emakumezko baten izena:  
*Itziar*

Gizonezko baten izena:  
*Aitzol*

Irakasgai bat: *Filosofia*

Hizkuntza bat: *Euskara*

Ametz bat: *"Lortu omen dugu"*

Mendia ala hondartza:  
*Mendia*

Bapateko bertsoa ala paperekoa:  
*biak*

Herri bat: *Euskal Herria*

Kanta bat: *Euskal Herrian  
 euskaraz*

Bertsolari bat: *Xalbador*

Pertsonai historiko bat:  
*Sokrate*

Emakumezko baten izena:  
*Itziar*

Gizonezko baten izena:  
*Aitzol*

Irakasgai bat: *Filosofia*

Hizkuntza bat: *Euskara*

Ametz bat: *"Lortu omen dugu"*

Mendia ala hondartza:  
*Mendia*

Bapateko bertsoa ala paperekoa:  
*biak*

Herri bat: *Euskal Herria*

Kanta bat: *Euskal Herrian  
 euskaraz*

Bertsolari bat: *Xalbador*

Pertsonai historiko bat:  
*Sokrate*

Emakumezko baten izena:  
*Itziar*

Gizonezko baten izena:  
*Aitzol*

Irakasgai bat: *Filosofia*

Hizkuntza bat: *Euskara*

Ametz bat: *"Lortu omen dugu"*

Mendia ala hondartza:  
*Mendia*

Bapateko bertsoa ala paperekoa:  
*biak*

Herri bat: *Euskal Herria*

Kanta bat: *Euskal Herrian  
 euskaraz*

Bertsolari bat: *Xalbador*

Pertsonai historiko bat:  
*Sokrate*

Emakumezko baten izena:  
*Itziar*

askok... eta bertsoa ulertzeko gai denak bere aldeko jarrera izango du.

**berton:** Zein da emakumearen papera mundu horretan?

**Sebas:** Horretan ere emakumeak gizartean ezarritako erronka irabazi duela esango nuke beste arloetan bezala. Ez ninduke harrizko urte batzuk barru gaur Egañak duen txapela emakumeren baten buruan pausatzeak. Zergatik ez?

**berton:** Zein da zure ustez bertsolaritzaren etorkizuna?

**Sebas:** Gaur gazteak zarenon eskuetan dago geroa eta nik konfiantza handia dut gazteengan.

**berton:** Zer esango zenioke mundu honetan sartu nahi den gaztetxo bati?

**Sebas:** Euskal kulturaren beste atal bat da bertsolaritza, ez bakarra, eta atal guztietan saiatu behar dugu eraiki beharreak eraikitzen eta eraikia sendo zaintzen. Oraintsu Etxenike fisikari jaunari gauza bera entzun badiot ere, 1976an euskara ikasi berri zuen 68 urteko bilbotar zapatari bati bertso saio batean hauxe entzun nion: "Euskararik ez baneki bertsoak entzun, ulertu eta gozatzearren bakarrik ikasiko nuke, beste ezertarako balioko ez balit ere".

**berton:** Amaitzeko, euskarren inguruan gauza nahikotxo egiten direla uste duzu?

**Sebas:** Euskararen egoera asko aldatu da, ez dugu lehen bezain ilun ikusten, baina Euskal Herrian Etxepareren "kanpoan" "plazan" euskara jakin beharra sentitzen ez dugun bitartean "nahikoa" hitza ezin erabili, egoera diglosikoan aurkitzen baita.

**Biktimganako** **Servicio de**  
**Laguntza** **Asistencia**  
**Zerbitzua** **a la Víctima**


*Zeurekin gaude*

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE  
 SEGURANTZA SAILA  
 Giza Eskubideen eta Justiziarekiko  
 Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
 TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL  
 Dirección de Derechos Humanos  
 y Cooperación con la Justicia



**ASAPALA**  
 KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon  
 topagunea eta elkarte  
 egin guran gabiltza

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu,  
 batu gurera!

Hemen gagoz:  
 Iturriaga 55, 1. Ezkerra  
 Tfnoa. : 944735448  
 E-posta: asapala@eusnet.org

**BASTERTXU**



**TABERNA**

Ricardo Bastida plaza

**Gelaya**

HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-  
 SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92  
 Tfnoa. 94 473 07 78  
 48004 SANTUTXU - Bilbo

**Bikoitz**

ARROPAK ★  
 ZILARRA ☾  
 OPARIAK ★

Part. Arsuaga SANTUTXU  
 Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO



# horoskopoa

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.  
Txo, urtero gauza bera, egin gogorrena besteen aurrean gaba batez, eta gero aste osoa ohetik mugitu ezinik, gripeak jota.
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.  
Bai, Olentzero ederto portatuko da zurekin, zintzoa izan zara, eta gura dozun guztia, kontua zuk sinestea da. Gero, zer dakarren... ez kexatu!
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.  
Gabon egunean intxaur saltsa, gabon zaharretan turroia, txarrien pare jan eta negarrez gerrikoaren bueltak ematen ez deusulako? Gerriko handiagoa eskatu Olentzerori.
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.  
Harrapatzen bazaitu, harrapatzen bazaitu... jo ta bertan... zergatik? ni? Baina begiratu dozu zeure burua ispiluan azken aldian?
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.  
Xanpaina, gabon zaharretakoa, lasai zurea ez da gripea, termometroa erabili gura badozu. Hartu aspirinatxu bat eta itzi besteok pakean.
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.  
Badator, badator, ez dakit tximiniatik sartuko ete jakon zure oparia. Holango fardel handia...
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.  
Zuk egin gutuna, hau eskatu bestea eskatu, benetan pentsaten dozu hain zintzoa izan zareala? Tira, ondo merezita daukazu.
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.  
Zigarro horregaz gogor itxura daukazula uste dozu? Western-etako cowboy-a emoten dozu.
- Sagitarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.  
Ez dakit, ba... saiatu, saiatu zara, baina hortik aurtun angulak jango dozuzala pentsatea...
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.  
Zu zoaz lasai lotara, bihar itzartukeran arbola opariz beteta egongo da. Urtean behin gox altzatzen zara negarrik.
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.  
Azkenaldian jasangaitz zabiltz! Jatorra izaten badakizu baina buruan erdian ideia hori sartzen jatzunean... Emon pakea behingon!
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.  
Donostian marrazoak badagoz, Mahatserría Kenyako safaria da eta zu Tarzan zara, non itzi dozu Txita?

A D A T O Z I N O R R O T Z A

# agenda

## MUSEOAK

Euskal Museoa: 29tik aurrera "Estampas de Bilbao del XVI al XIX".

## ERAKUSKETA GELAK

Bilbao Arte: 25etik aurrera C.Gredos eta C.Arguesen eskulturak.  
 Barrainkua Kultur Etxea: 28tik aurrera "Ihaute-riak 2000" lehiaketara aurkeztutako kartelak.  
 Begoñako Auzo Etxea: 21etik aurrera Victoria Rodríguez-en oleoak.

## EUSKALDUNA JAUREGIA

Otsailak 26: G.Verdiren "La Traviata" opera. ABAO. 20,00tan.  
 Otsailak 27: Plovdiv-eko Orkestra Sinfonikoa. Gershwin-en obrak. 20,00tan  
 Otsailak 29: G.Verdiren "La Traviata" opera. ABAO. 20,00tan.

## AYALA ANTZOKIA

Otsailak 26, 27, 28 eta 29: Patxi Bilbaoren "Fascinación" antzezlan. Ugalma konpainia.

## LA FUNDICIÓN ARETOA

Otsailak 27 eta 28: Thomas Noon Dantza Konpainiaren "Still-mo" eta "Thread".

## BESTERIK:

Martxoak 3: "Eguzki Lorea" Boluetako Mendi Taldearen 10. urteurrena.  
 Martxoak 5: "Eguzki Lorea"-rekin Peña San Tir-sora (Araba) irteera. Informazio gehiago asteazken eta ostegunetan 19,30tik 21,00 arte Begoñako Auzo Etxean. Telefonoa: 94-4122738.  
 Martxoak 12: "Eguzki Lorea"-rekin Atxartera. Informazio gehiago asteazken eta ostegunetan 19,30tik 21,00 arte Begoñako Auzo Etxean. Telefonoa: 94-4122738.

**Pinochet kasua, neska biluzia bezalakoa da, berarekin hiru gauza egin ditzakegu:**

1. beste leku batera begiratu
2. burusi batekin bera estali.
3. berarekin oheratu.

**kasu honetan hirurak posibleak dira.**



D E G I N O R R O T Z A